



BANAKETA BIDEAK ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Lehenik eta behin, ANOTHER LIVE plataforman erabiltzaileekin harreman zuzena izatea dugu helburu eta horretarako komunikazio bide hauek erabiliko ditugu:

- Telefonoa funtsezkoa izango da, bezeroentzako arreta azkarra eskaintzeko eta bidalketa ordainketa edo kontuarekin lotutako urgentziak konpontzeko.
- Emailen bidez, erabiltzaileek arazoak, kexak edo informazio eskaerak bidali ahal izango dituzte, eta erantzun pertsonalizatua jasoko dute. Beste aldetik, bidalketan zailtasunak egonez gero, emailen bidez kexatu ondoren, jakin dezakete non dagoen bere produktua, noiz helduko den edo bere produktuarekin duten edozein arazo konpondu dezakete.
- Bestalde, sare sozialak, hala nola, Instagram, X eta Facebook, beharrezkoak izango dira, komunitatea sortzeko eta erabiltzaileek zalantza txikiak eta zehatzak galdetzeko modurik azkarrenean.
- Horrez gain, webgune ofizial bat sortuko dugu ANOTHER LIVE aplikazioaren informazio orokorrarekin, erabilera baldintzekin, eta ohiko galderekin (erantzunak barne). Webgunean ere arreta-zerbitzura zuzen jotzeko aukera egongo da, erantzunak ahalik eta azkarren jasotzeko.
- Aldi berean, azoketan, hitzaldietan eta aurkezpenetan parte hartuko dugu. Ekitaldi hauetan jendeari zuzenean azalduko diogu ANOTHER LIVE funtzionamendua, helburua eta bertan aplikazioa deskargatzeko laguntza eskainiko dugu. Honek konfiantza eta hurbiltasuna sortzen lagunduko du.
- Bestetik, gure komunitatea handitzeko kartelak eta panfletoak jarriko ditugu herriko toki estrategikoetan, hala nola unibertsitateetan, kultur etxeetan, liburutegietan edo gaztelekuetan, gure publiko handiena egongo den lekueetan. Horrek gure marka fisikoki ere ikusgarri bihurtuko du. Hala ere, beste bezero batzuegana iristeko, hau da, aplikazioa ezagutu nahi duten adinekoek, panfletoak jasoko dituzte postontzietan.



Komunikazio kanal hauek gure erabiltzaileekin harreman hurbila, fidagarria eta azkarra izatea bermatuko dute.

Bigarrenik, gure aplikazioaren zerbitzu digitala bideratzeko, hau da, gure aplikazioko produktuak bezeroengana ailegatzeko, bi modu daude:

- AMAZON enpresarekin aliantzak egitea erabaki dugu. Enpresa honek banaketa-sare handia eta logistika onak ditu, hau da, bezeroentzako arreta-zerbitzuek maiztasun handiz erantzuten dute. Honek modu arinean hartzen du produktua saltzailearen etxetik eta bidaltzen du bezeroaren etxeetara. Honi esker gure aplikazioak nazioarteko hazkunde potentzial handiagoa izango du etorkizunera begira.
- Saltzailearen eta bezeroaren arteko distantzia txikia bada, eta haiek hala nahiko balute, era informalean, aplikazioak aukera ematen die horrela elkartzeko. Izan ere, aplikazioa hau autatuz gero, chat bat izango dute eguna, ordua eta tokia zehazteko.
- Sngular enpresarekin aliantzak ere egitea erabaki dugu. Nazioarteko presentzia duen kontsultore teknologikoa da, eta espezializatutako talde handia dauka, horri esker, proiektu konplexuak modu osoan garatu ditzake, diseinutik hasita garapenera, ezarpenera eta mantentzera arte. Horrez gain, metodologia arinak erabiltzen dituzte eta komunikazio ona bermatzen dute, gure beharretara egokitzeke malgutasun handiarekin.

Horrela, ANOTHER LIVEk digitaletik fisikora doan esperientzia osoa bermatuko du AMAZONen bitartez.

Izan ere, ANOTHER LIVEk ez dauka denda fisikorik, dena online bidez kontrolatzen da. Honek esan nahi du, gure bezeroek ezin dutela dendetara joan produktua hartzera ala erostera, eta aplikazioaren bitartez egin behar dutela.